



Zure gelan ni bezalako **Adimen-gaitasun handiko** ikasleren bat egon daiteke.

¿Asmatuko zenuke nor naizen?

¿Jakingo zenuke ni nola lagundu?

.....

Adimen Gaitasun Handiekin erlazionatuta dauden topikoak gainditu daitezten eta jendeak **nolakoak garen eta zer behar dugun** ulertu dezan nahiko genuke. Horretarako, gure guraso eta profesional desberdinez (irakasle, psikologo, aholkulari...) osatuta dagoen **Adimen-gaitasun handikoei laguntzeko plataforma-k** egindako liburuxka honekin zu laguntzea nahiko genuke.

.....

Gaitasun Handiei buruzko estereotipoak

1. Errendimendu handia dugu.

2. Dena interesatzen zaigu.

3. Inoiz ez dugu akatsik egiten lanetan, inoiz ez gara okertzen.

4. «Konturatu barik» ikasten dugu, ez dugu ikasi beharrik.

5. Beti lortzen ditugu nota onak.

6. Oso helduak gara eta ez dugu laguntzarik behar.

Gure errealitatea

1. Ahalmen handia dugu.

2. Oso erraz galtzen dugu motibazioa.

3. Batzuetan lan errazenetan huts egiten dugu arinegi egitearren. Pertsonak gara!.

4. Ikasteko dugun erraztasunagatik, ez ditugu ikasteko ohitura onak eskuratzen.

5. Eskola porrota izan genezake.

6. Sarritan gure heldutasun emozionala ez dator bat gure adin mentalarekin.



Lar argiak zoriontsu izateko? Zergatik sufritzen dugu gaitasun handiko haur eta gazteok?

- Dauden estereotipoei esker, denok berdinak garela eta gauzak era berean egiten ditugula uste da. Baina, ez gara klonak!



- Sarritan gure interes bereko lagunak aurkitzea kostatu egiten zaigu. Eta behar ditugu.

- Gure adineko kideekin dugun harremana korapilatsua izaten da. Bullying-aren biktimak izan gaitzke.



- Batzuetan kamuflatu egiten gara (neskak bereziki) gelan integrazioa lortzen saiatzen garelako. Baina jarrera honekin gure burua engainatzen dugu eta gure detekzioa zailtzen dugu.

- Ohikoa izaten da egokitzapen edo portaera, autoestimua edo/eta depresio arazoak izatea. Askotan gure baitan ixten gara eta oso txarto pasatzen dugu.

- Gehienoi ez dizkigute gure gaitasun handiak detektatzen. Detektatuko balizkigute, ordea, hobeto ulertu eta onartuko ginatke denok. Eta gure familiek gutxiago sufrirituko lukete.

- Eta gure gaitasun handiak detektatzen dituztenean ez dakite gurekin zer egin edo/eta hartzen dituzten neurriak desegokiak izaten dira, gure herrialdean ia ez dagoelako Gaitasun Handiei laguntzeko eredu eraginkorrik.

.....

Gainera, denok ez ditugu arazoak izaten hasieratik, baina banakako arreta goiztiarra behar dugu gure helburuak lortzeko eta gure gaitasun eta kompetentziak ahalik eta hoberen garatzeko. Eta kontutan eduki behar da **LOE eta LOMCE-ak hezkuntza beharrian bereziak dituzten ikasle bezala kontsideratzen gaituztela**. Hau dela eta, legeak gure arretarako neurri espezifikoak jasotzeko eskubidea ematen digu.


Gure ustetan, ikastetxeetan aurkitzen ditugun zailtasunak, neurri batean, irakasleriaren formazio egokiaren faltarengatik ematen dira eta hau dela eta Plataforma honek laguntza eskaini nahi dizu. Ikastetxeetan eskaintzen diguten arreta egokiro hobetzen edo aldatzen bada, arazo horietako asko gaindituko ziren.





konponbidearen parte izatea gustatuko litzaizukeela badakigu eta horretarako:

- **Lehenik, Gaitasun Handiak detektatzen lagundu dezakezu.** Garrantzitsua da hau gela barruan ematea, irakasle eta ikastetxeen formazio eta parte hartzea oinarritzkoa delarik. **Askotan ez gara ezaguterrazak**, ez baitugu dirdirutzen ilunetan.
- **Adimen Handiak identifikatu ostean** behar dugun arretan, zu, irakasle bezala, aktore nagusia zara. **Beharrezkoa zaitugu!** Irakasleriaren esku hartzea da garrantzitsuena baina ez litzateke bakarra izan behar.



Plataformak bloga sortu du, informazioa eta dokumentazioa zure esku jartzeko: <http://apoyoac.blogspot.com>.

Gainera, gurekin harremanetan jartzera animatzen zaitugu, hurrengo helbide elektronikoaren bidez: plataforma.aacc.consultas@gmail.com. Zure zalantzak erantzuten ahaleginduko dira, aholkatzen edo Adimen Handiaren gaian espezialista den pertsonarengana bideratzen.

Anima zaitetz aldaketaren partaide izaten!



ADIMEN-GAITASUN HANDIKOEI LAGUNTZEKO PLATAFORMA.

Mitoak desmuntatuz. Talentua bultzatuz.